

Boise eta Xabi

- Hepa.
- Kaixo! Egun on!
- Egun on.
- Pakete-banatzailea zara?
- Zer? Pakete-banatzailea? E... ez.
- Ai, barkatu! Eta... zein da zure lanbidea?
- Ba... Aktorea naiz.
- Uau, aktorea zara? Zer lanbide polita!
- Ba... bai, bai. Oso polita da.
- Ni ikaslea naiz, unibertsitateko ikaslea. Eta... nola duzu izena?
- Xabi naiz. Eta zu?
- Ni Boise naiz.
- Boise? Zer izen arraroa. Nongoa zara?
- Bada, Boisekoa naiz, Ameriketako Estatu Batuetakoa, baina ama eta aita euskaldunak dira: Nafarroakoak dira.
- Hara! Eta zu non bizi zara? Boisen bizi zara?
- Ez, orain Donostian bizi naiz. Bueno, orain hotel batean bizi naiz. Baina etxea bilatzen ari naiz; bueno, logela bat.
- Hotel batean bizi zara, Donostian? Ufff...! Zenbat urte dituzu?
- 20 urte ditut. Eta zuk, Xabi?
- Nik 21 urte ditut. Eta... hemen bizi naiz.
- Bai?
- Bai. Ikusi nahi duzu?
- Bai, noski!
- Mmmm... Gaur ez. Bihar?
- Bai, oso ondo!
- Izena?
- Boise.
- A, bai, Boise. Eta... zenbaki bat?
- A, bai, Boise. Eta... zenbaki bat?
- Eeee... Zortzi!
- Telefono-zenbakia!
- Ai, barkatu! 1408 666 5432
- Bueno, ba... Bihar deituko dizut, bai?
- Oso ondo! Bihar arte!!